Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduak
Prebentzioa, Su Itzalketa eta Salbamendua

Otxoki pas., 100 | Tel.: 943483920 | suhiltzaileak@donostia.eus - www.donostia.eus/suhiltzaileak
20015 Donostia / San Sebastián

DONOSTIAKO UDALAREN PREBENTZIO, SU ITZALKETA ETA SALBAMENDU ZUZENDARITZARAKO LANGILEAK ETA MATERIALA GARRAIATZEKO IBILGAILU BAT HORNITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

Agiri honen xedea da baldintza tekniko batzuk zehaztea, Donostiako Udalaren Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzurako langileak eta materiala garraiatzeko ibilgailu bat hornitzeko eraenduko dutenak.

1. KONTRATUAREN XEDEA:

Hau da ekarri behar den ibilgailua:

"0" ingurumen-bereizgarria duen furgoneta hibrido entxufagarria.
Lizitazioaren gehieneko prezioa: 55.000,00 €. (% 21eko BEZa barne).
Norako: Prebentzio, Su-Itzalketa eta Salbamenduko Zuzendaritza (PSIS)

2. OINARRIZKO EZAUGARRIAK:

Jarraian zehaztuko diren gutxieneko baldintza teknikoez gain, beharrezkotzat jotzen diren elementu eta mekanismo guztiak izan beharko ditu ibilgailuak, betiere ibilgailu motordunei buruzko araudi guztiak betetzen badituzte elementu eta mekanismo horiek.

10740n XVII

2.1 EZAUGARRIAK

Furgoneta motako ibilgailu bat, eserlekuen bi ilara homolagatu dituena, 5 pertsonarentzat, eta kargatzeko espazio bat, eserlekuen eremutik bereizita, manpara baten bidez.

2.1.1 EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Plaza-kopurua: bost. 2 + 3
- Neurriak:
  - Luzera: 5.300-5.600 mm bitartean.
  - Zabalera: 2.100-2.300 mm bitartean.
  - Altuera: 1.800-2.100 mm bitartean.
- Ateak: 6.
  - 2 ate aurrealdean, pilotuarentzat eta kopilotuarentzat.
  - 2 ate tripulazio-gunean.
  - 2 ate atzeko karga-eremurako.
- Propultsio-sistema:
  - Gasolinazko barne-errekuntzako motorra eta 2.300 zentrimetro kubikotik gorako zilindrada.
  - Gutxienez 30 km-ko autonomia duen propultsio sistema elektrikoa.
  - 200 CVtik gorako potentzia konbinatua (errekuntza-motorra + motor elektrikoa).
- Abiadura-kaxa: automatikoa.
- Ibilgailuaren gehienezko CO2 isuriak: 50 gCO2/km
  (Egiaztatzea: ibilgailuaren ezaugarri teknikoen fitxa edo modeloaren adostasun-ziurtagiria)
- Freno-sistema: blokeoaren aurkako sistemarekin edo antzekoarekin lagundua.
- Egonkortasuna eta trakzioa kontrolatzeko sistema elektronikoak.
- Aire girotua, klimatizagailua edo antzekoa.
- Pintura: ibilgailuaren kolorea "RAL 3000 Fire Red" izango da.
- Kutsadura: indarrean den araudiaren arabera homologatua, "0" ingurumen-bereizgarria.

Otxoki pas., 100 | Tel.: 943483920 | suhiltzaileak@donostia.eus - www.donostia.eus/suhiltzaileak
20015 Donostia / San Sebastián

2.2 KARROZERIA ETA EKIPAMENDUA

- Eserlekuek buru-euskarria izan behar dute.
- Atzeraispiluak elektrikoak eta termikoak.
- Pneumatikoak: Pneumatikoak energia-eraginkortasuneko motakoak izango dira, gutxienez «B» motakoak, eta gutxieneko zarata-emisioak «B» motakoak, pneumatikoen nahitaezko etiketaren arabera (2020/740 (EB) Erregelamendua). (Egiaztapena: pneumatikoen etiketa europarra)
- Atzeko kamera
- Atoirako bola-kakoa, 13 poloko konektorearekin.
- Gidariarentzako eta laguntzailearentzako airbaga.
- Kargako lurzoruaren babesa.
- Aurreko beira-jasogailuak: elektrikoak
- Atzeko beirak ireki ahal izan behar dira (eskuzkoa edo elektrikoa).
- LED argiztapena karga-eremuan.
- Ibilgailuek energia-kontsumoaren bistaratzailea edo display-a izan beharko dute, ibilgailuaren gidatzearen arabera. (Egiaztatzea: ibilgailuaren ezaugarri teknikoen fitxa, modeloaren adostasun-ziurtagiria).
- Larrialdiko seinaleztapen-sistema:
  - Sirena elektronikoa.
  - 2 estroboskopio urdin sabaiaren goiko aldean, aurrealdean, kokakuta.
  - 2 estroboskopio urdin aurreko parrilan kokatuta.
  - 2 estroboskopio urdin atzealdean kokatuta.
  - Argi aginte eta sirena elektronikoa: bi tekla izan behar ditu, aginte-panelean jarrita. Horietako batek lehentasunezko argiak aktibatuko ditu, eta besteak sirena.
- Ezaugarri hauek izango dituzten bi irrati-ekipo jarri behar dira:

- Konfigurazio trinkoko DMR Tier III sistemarako terminal mugikor digital bat, bateriak kargatzeko kableak, mikrofonoa eta RF/GPS (VHF) antena duala muntatzeko burdineria edo brida barne.

- TETRA Terminal ekipo bat, teklatua, pantaila, osagarriak konektatzekoa eta GPSa ere sartuta dituena. RFko irteera-potentzia minimoa 3W. Banda-zabalera: 380-430MHz. DMO Gateway edo DMO Repeater funtzioak dituena. Kanpoko antena, GPSa TETRA antenan integratua duena.

- Instalazioa kabinaren zentratuta egingo da, gidariak eta laguntzaileak maneiatu ahal izan dezaten, eta ez da aginte-panelean jarriko.

3. DOKUMENTAZIOA

Enpresa esleipendunak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu ibilgailua entregatzekoan:

3.1 Fabrikatzailearen berme-ziurtagiria

Bermeak txasisa eta ekipamendu berezia estali behar ditu, hiru urtez, gutxienez.
Ez da sartzen ibilgailuaren hornitzaileari egotzi ezin zaion erabilera okerragatiko edo istripuagatiko konponketarik.

3.2 Funtzionamendu-eskuliburua

Gaztelaniaz edo euskaraz idatzita izango da, eta ibilgailuaren mantentze-lanak eta ekipamendu berezia jaso ditu, bai eta ibilgailuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkotzat jotzen den guztia ere.

3.3 Ekipamendu berezia legeztatzea

Enpresa esleipendunak kudeatuko eta ordainduko ditu ibilgailua eta dagozkion ekipamenduak homologatzeko edo legeztatzeko gastu guztiak. Ibilgailua hartzeko aktari erantsiko zaio dokumentazio hori guztia.

Baldintza-agirietan adierazitako eskakizun teknikoak ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarri dezake.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduak
Prebentzioa, Su Itzalketa eta Salbamendua

Otxoki pas., 100 | Tel.: 943483920 | suhiltzaileak@donostia.eus - www.donostia.eus/suhiltzaileak
20015 Donostia / San Sebastián

4. BERME-ALDIA

- Gutxieneko berme-aldia:

Hiru (3) urte, produktuaren JASOERA AKTA sinatzen denetik zenbatua.

5. ENTREGATZEA ETA HARTZEA

Gehienez ere 10 hilabete izango dira ibilgailua entregatzeko kontratua formalizatzen den momentutik

Ibilgailua Donostiako Suhiltzaileen Etxean entregatu behar da (Otxoki pasealekua, 100. 20015 Donostia).

Ibilgailua entregatzeko solaskide bat izendatu behar du enpresa esleipendunak. Pertsona hori e-mailez jarriko da kontratuaren arduradunarekin harremanetan (Imanol Andonegui Maeztu: Imanol_andonegui@donostia.eus).

Donostia, sinaduraren egunean

PSIZSeko ofiziala

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Olatz Yarza Garagorri (04/11/2025 10:16 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 8EUN-Z07T-OQLJ-7DF4